


Euskal AEko BPG % 1,7 igo da 2024ko lehen hiruhilekoan, eta 19.000 lanpostu baino gehiago sortu dira

Aurreko hiruhilekoaren aldean, BPG % 0,6 hazi da eta enplegua % 0,5

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko Barne Produktu Gordinak (BPG) % 0,6 egin du gora 2024ko lehen hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoaren aldean. Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, BPGren hazkunde zenbatetsia % 1,7koa izan da.

Enplegua, dedikazio osoko baliokidetzako lanpostuen terminoetan neurtuta, % 0,5 igo da urteko lehen hiruhilekoan aurreko hiruhilekoaren aldean, eta horrek, urte arteko terminoetan, % 2,0ko hazkundera dakar, hau da, guztira, 19.349 lanpostu garbi gehiago 2023ko lehen hiruhilekoan baino.

Urteko azken hiruhilekoko BPGren hazkundearen zenbatespen horiek hamarren bat hobetu dituzte joan den 2024ko apirilaren 23ko hiruhilekoko kontu ekonomikoen aurrerapenerako zenbatetsitakoak, bai urte arteko terminoetan, bai hiruhileko artekoetan. Enpleguaren hazkundearen zenbatespena, aldiz, ez da aldatu.



Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontu ekonomikoak

2024ko lehen hiruhilekoan Euskal AEko ekonomiarako zenbatetsitako urte arteko hazkundera, Eurogunean eta Europar Batasun osoan baino nabarmen handiagoa, Espainiako ekonomiarako zenbatetsitakoa baino zazpi hamarren txikiagoa da. Estatu Batuetako ekonomiaren hazkunderaren kalkulurik berriena % 2,9koa da.

Eskaintzaren ikuspegitik, urteko lehen hiruhilekoan balio erantsiaren urte arteko bilakaera positiboa izan da sektore handi guztietan, lehen sektorean izan ezik.

Lehen sektoreak, hain zuzen ere, % 0,5eko beherakada izan du balio erantsian, balio errealetan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, nahiz eta aurreko hiruhilekoaren aldean % 5,4 hazi den.

Industriaren balio erantsiak % 0,1eko urte arteko aldakuntza erakusten du aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, aurreko hiruhilekoaren aldean % 1,1eko hazkundera. **Manufaktura-industria** erritmo handixeagoan hazi da, bai urte artean, bai aurreko hiruhilekoaren aldean, % 0,4 eta % 1,5, hurrenez hurren.

BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE (%). 2024/I

	2022	2023	2023				2024
			I	II	III	IV	I
NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA, ARRANTZA	-8,7	-3,0	1,3	-5,9	-4,4	-2,6	-0,5
INDUSTRIA ETA ENERGIA	4,7	0,3	1,2	-0,7	0,5	0,1	0,1
Manufaktura-industria	4,4	0,5	1,5	-0,5	0,7	0,3	0,4
ERAIKUNTZA	6,7	2,1	0,9	3,6	2,5	1,5	2,0
ZERBITZUAK	5,9	2,4	3,0	2,2	2,1	2,3	2,2
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	14,6	3,7	5,7	3,1	3,7	2,5	1,0
Herri administrazioa, hezkuntza, osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak	0,9	2,3	1,3	2,3	2,6	2,9	3,2
-Gainerako zerbitzuak	3,2	1,6	2,2	1,6	0,7	1,7	2,4
BALIO ERANTSI GORDINA oinarritzko prezioetan	5,5	1,8	2,5	1,5	1,7	1,6	1,6
PRODUKTUEN GAINEKO ZERGA GARBIAK	4,6	1,6	1,8	1,0	1,5	1,9	1,9
BARNE-PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	5,4	1,8	2,4	1,5	1,7	1,7	1,7

Urtaroen eta egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Data 2024ko Ekainaren 7a

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontu ekonomikoak

Eraikuntzaren balio erantsia % 2,0 hazi da aurreko urteko lehen hiruhilekoaren aldean, 2023ko azken hiruhilekoaren aldean % 0,9 hazi ondoren.

Zerbitzuen sektorearen jarduera globala urteko lehen hiruhilekoan % 2,2 hazi da urte artean eta % 0,3 hiruhileko artean. Zerbitzuen portaera positiboa izan da lehen hiruhileko honetan hiru adar bereizietan, bai aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, bai aurreko hiruhilekoaren aldean.

Merkataritza, ostalaritza eta garraioa % 1,0 gehitu da aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, aurreko hiruhilekoaren aldean % 0,6.

Administrazio publiko, hezkuntza, osasun eta gizarte-zerbitzuen adarrean, lehen hiruhilekoan urte arteko hazkunde-tasa % 3,2 izanik, balio erantsiaren igoera % 0,4 izan da aurreko hiruhilekoaren aldean.

Azkenik, **Gainerako zerbitzuen** adarrean sartzen diren jarduerak – hala nola jarduera higiezinak, profesionalak, zientifikoak eta teknikoak, eta finantza- eta aseguru-jarduerak – balio erantsia % 2,4 igo dute 2024ko lehen hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuz gero, eta % 0,1 aurreko hiruhilekoarekin alderatuz gero.

2024ko lehen hiruhilekoko sektore-agregatuaren portaerak **Balio Erantsiaren** bilakaera positiboa ekarri du, bai urte artean, bai hiruhileko artean, % 1,6ko eta % 0,6ko hazkundeekin, hurrenez hurren.

BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE (%). 2024/I

	2023				2024
	I	II	III	IV	I
NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA, ARRANTZA	3,2	0,3	6,6	-11,7	5,4
INDUSTRIA ETA ENERGIA	1,1	-0,9	-2,0	1,9	1,1
Manufaktura-industria	1,4	-0,5	-2,2	1,6	1,5
ERAIKUNTZA	0,4	0,6	0,0	0,4	0,9
ZERBITZUAK	0,4	0,4	1,0	0,4	0,3
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	2,1	0,4	0,9	-0,9	0,6
Herri administrazioa, hezkuntza, osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak	0,1	0,4	1,1	1,3	0,4
-Gainerako zerbitzuak	-0,6	0,3	1,1	0,9	0,1
BALIO ERANTSI GORDINA oinarritzko prezioetan	0,6	0,1	0,3	0,7	0,6
PRODUKTUEN GAINEKO ZERGA GARBIAK	1,1	1,8	0,2	-1,1	1,1
BARNE-PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	0,6	0,3	0,3	0,5	0,6

Urtaroen eta egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Data 2024ko Ekainaren 7a

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontu ekonomikoak

Eskariaren aldetik, Etxeetako azken kontsumoko gastua eta ISFLSH (**Kontsumo pribatua**) aurreko urteko hiruhileko berean zenbatetsitakoa baino % 1,7 handiagoa izan da, aurreko hiruhilekoaren aldean % 0,9ko hazkundera izan ondoren.

Kontsumo publikoak (Administrazio Publikoen azken kontsumoko gastua), bestalde, urteko lehen hiruhilekoan % 2,6ko hazkundera izan du urte arteko terminoetan, hau da, hiruhileko arteko % 0,6ko hazkundera.

BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE (%). 2024/I

	2022	2023	2023				2024
			I	II	III	IV	I
GASTUA AZKEN KONTSUMOAN	6,0	1,5	2,0	1,2	1,6	1,4	1,9
Familien eta EZMAEDE-en azken kontsumo gastua	7,7	1,5	1,8	0,9	1,6	1,5	1,7
Herri administrazioen azken kontsumo gastua	0,7	1,8	2,4	2,3	1,3	1,2	2,6
KAPITALAREN OSAKETA GORDINA	8,7	2,1	1,6	2,5	2,6	1,6	1,3
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	7,1	2,1	2,4	0,9	2,4	2,5	0,2
Gainerako Kapitalaren Eraketa Gordina	9,6	2,0	1,1	3,5	2,6	1,0	2,0
BARNE-ESKARIA	6,7	1,7	1,9	1,5	1,8	1,4	1,8
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESPORTAZIOAK	17,1	1,2	6,3	-2,5	-0,6	1,6	-3,7
ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK	18,7	1,0	5,4	-2,3	-0,3	1,3	-3,4
BARNE-PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	5,4	1,8	2,4	1,5	1,7	1,7	1,7

Urtaroen eta egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Data 2024ko Ekainaren 7a

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontu ekonomikoak

AAPPetako azken kontsumoko gastuaren eta Familia-etxeetako azken kontsumoko gastuaren bilakaera bateratuak **Azken kontsumoko gastuaren** urte arteko % 1,9ko hazkundera eragin du urteko lehen hiruhilekoan. Aurreko hiruhilekoaren aldean, % 0,9ko hazkundera.

Kapitalaren eraketa gordinak (Inbertsioa) % 1,3ko urte arteko aldakuntza-tasa izan du lehen hiruhileko honetan, bai urte arteko baliotan, bai hiruhileko arteko baliotan.

Osagaien arabera, **Ekipo-ondasunetan egindako inbertsioa** % 0,2 hazi da aurreko urteko lehen hiruhilekoaren aldean, baina % 0,5 jaitsi da aurreko hiruhilekoaren aldean. **Kapitalaren eraketa gordinaren gainerakoan**, eraikuntzaren bilakaerari lotuago, aldiz, urte arteko eta hiruhileko arteko hazkunde nabarmenagoa zenbatetsi da, % 2,0koa eta % 2,5koa, hurrenez hurren.

BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE (%). 2024/I

	2023				2024
	I	II	III	IV	I
GASTUA AZKEN KONTSUMOAN	0,4	0,3	-0,4	1,1	0,9
Familien eta EZMAEDE-en azken kontsumo gastua	0,7	1,1	-1,1	0,8	0,9
Herri administrazioen azken kontsumo gastua	-0,8	-2,2	2,2	2,1	0,6
KAPITALAREN OSAKETA GORDINA	1,6	0,6	-2,8	2,2	1,3
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	1,9	-0,1	-5,3	6,3	-0,5
Gainerako Kapitalaren Eraketa Gordina	1,4	1,0	-1,2	-0,3	2,5
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESPORTAZIOAK	6,2	-5,6	0,4	1,0	0,6
ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK	6,0	-5,2	-1,4	2,2	1,1
BARNE-PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	0,6	0,3	0,3	0,5	0,6

Urtaroen eta egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Data 2024ko Ekainaren 7a

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontu ekonomikoak

Barne-eskariaren, azken kontsumoko gastuaren eta kapital-eraketa gordinaren osagaien bilakaerak urte arteko % 1,8ko hazkundera ekarri du hiruhilekoan. Hazkunde hori BPGd-rako zenbatetsitakoaren gainetik dago (% 1,7); beraz, **kanpo-sektorearen** ekarpena negatiboa izan da urteko lehen hiruhileko honetan. Izan ere, Ondasun eta zerbitzuen **esportazioak** % 3,7 jaitsi dira urte artean, **Inportazioak** (% 3,4) baino intentsitate handiagoarekin. **Kanpo-saldoak**, beraz, eragin negatiboa izan du hiruhileko honetan Euskal AEko ekonomia osoaren urte arteko bilakaeran.

Enpleguari dagokionez, **lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta**, % 2,0ko aldakuntza positiboa zenbatetsi da urte arteko terminoetan. Urte arteko tasa horrek % 0,5eko hazkundera dakar 2023ko azken hiruhilekoaren aldean.

Enpleguaren urte arteko bilakaera positiboa izan da jarduera-adar guztietan, lehen sektorean izan ezik, % 0,7ko atzerakada izan baitu. Gainerako adarretako igoerak, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, % 1,1 izan dira Industrian, % 0,3 Eraikuntzan eta % 2,4 Zerbitzuetan.

BPGk lurralde historikoetan duen bilakaerari dagokionez, Arabak urte arteko % 1,2ko tasa du urteko lehen hiruhilekoan, Bizkaiak % 1,7koa eta Gipuzkoak % 1,9koa. Aurreko hiruhilekoaren aldean, BPGren aurrerapenak % 0,7 izan dira Araban eta Gipuzkoan, eta % 0,6 Bizkaian.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Servicio de Prensa: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62